

Concurso de pósters Oiasso Museoa

Actividad del mes de los Museos de la Costa Vasca

Sirenas y otras criaturas marinas de la Antigüedad

Con motivo de la celebración del mes de los Museos de la Costa Vasca, el Museo Romano Oiasso de Irún organiza un concurso de pósters dedicado a los seres mitológicos relacionados con el mar en la Antigüedad Clásica. Los más famosos de todos ellos son las sirenas que, contrariamente a la iconografía actual que las representa con una cola de pez, eran genios marinos mitad mujer mitad ave. Además de las sirenas, que son las más famosas, en la mitología antigua hay otras criaturas mitológicas femeninas relacionadas con el mar y los océanos. Dado que el mes de los Museos de la Costa Vasca está dedicado a la relación de las comunidades costeras con el mar y teniendo en cuenta la dedicación específica del museo Oiasso al mundo grecorromano nos ha parecido interesante proponer la creación de una serie de pósters que actualicen, transformen y recuerden la mirada sobre estos seres mitológicos femeninos en la actualidad. Como fuente de inspiración básica proponemos el famoso texto de la Odisea de Homero:

"Llegarás primero a las sirenas, que encantan a cuantos hombres van a su encuentro. Aquel que imprudentemente se acerca a ellas y oye su voz, ya no vuelve a ver a su esposa ni a sus hijos pequeñuelos rodeándole, llenos de júbilo, cuando torna a sus hogares; sino que le hechizan las sirenas con el sonoro canto, sentadas en una pradera y teniendo a su alrededor enorme montón de huesos de hombres putrefactos cuya piel se va consumiendo. Pasa de largo y tapa las orejas de tus compañeros con cera blanda, previamente adelgazada, a fin de que ninguno las oiga; mas si tú desearas oírlas, haz que te aten en la velera embarcación de pies y manos, derecho y arrimado a la parte inferior del mástil, y que las sogas se ligen al mismo; y así podrás deleitarte escuchando a las sirenas. Y caso de que supliques o mandes a los compañeros que te suelten, atente con más lazos todavía."

Pero también sabemos que a lo largo de los siglos ha habido cientos de obras de pintura, literatura e incluso cine, la última de ellas Piratas del Caribe 4, que tienen como protagonistas tanto a las sirenas como a otras criaturas marinas mitológicas como las Gorgonas o Cecaelia. Todas ellas pueden ser motivo de inspiración para nuestro concurso de pósters.

BASES

1. Las obras se presentarán en formato digital (jpg), a modo de póster, en sentido vertical, con un tamaño equivalente al DIN A3 y 300 ppp, es decir, 3508 x 4960 píxeles. En el póster pueden aparecer tanto imágenes como un título o texto explicativo del contenido del mismo.
2. El concurso cuenta con dos categorías:

- Categoría juvenil: entre 12 y 18 años, ambos incluidos.
 - Categoría adultos: a partir de 18 años.
3. El envío de los pósters será realizado únicamente por correo electrónico a la dirección actividades.oiasso@irun.org. En el asunto del email se indicará “Concurso de pósters Sirenas + Nombre y apellidos del/la participante”. En el cuerpo del mensaje se añadirá la categoría en la que concursa (juvenil o adulto), fecha de nacimiento, domicilio y teléfono de contacto. La imagen del póster irá adjunta y llevará como nombre el título bajo el cual se presenta.
 4. Cada participante podrá presentar un único póster y el plazo de entrega finalizará el 22 de marzo de 2019 a las 23:59h.
 5. El jurado estará compuesto por personal del Museo Oiasso.
 6. El fallo del jurado se emitirá el día 25 de marzo de 2019, fecha a partir de la que las obras recibidas se publicarán en la web del Museo Oiasso. La entrega de premios se realizará en el citado museo el viernes 29 de marzo de 2019.
 7. Participar en el concurso significa asumir sus normas.
 8. Todos los trabajos serán propiedad del Museo Oiasso.

PREMIOS

1. El premio consistirá en dos entradas para el Scape Room “El sueño del faraón”, situado en Irun, para cada una de las dos categorías.

AVISO LEGAL

De conformidad con el Reglamento General de Protección de Datos (RGPD) de 25 de mayo de 2016, los datos suministrados por los participantes a la presente convocatoria, serán recogidos en un fichero cuyo responsable Oiasso Museoa, siendo utilizados exclusivamente para dar curso a la Convocatoria.

Los datos de carácter personal serán tratados con el grado de protección adecuado para evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado por parte de terceros que lo puedan utilizar para finalidades distintas de aquéllas para las que han sido recabados. Los titulares de los datos podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición conforme a la normativa vigente.

Poster lehiaketa Oiasso Museoa

Euskal Kostaldeko Museoen Hilabeteko jarduera

Sirenak eta Antzinaroko beste itsas izaki batzuk

Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea dela eta, Oiasso Erromatar Museoak Antzinaro Klasikoko itsas izaki mitologikoei buruzko posterren lehiaketa bat antolatu du. Horrelako izakirik ezagunenak sirenak dira: egungo ikonografiak arrain buztana dutela irudikatzen ditu, baina erdi emakume erdi hegazti diren itsas jeinuak dira. Nolanahi ere, sirenez gain, antzinako mitologian badira itsasoarekin eta ozeanoekin erlazionatutako beste izaki eme batzuk. Bada, Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea kostaldeko erkidegoen eta itsasoaren arteko harremanari eskaini zaionez gero, kontuan izanik Oiasso Museoak greko-erromatar mundua lantzen duela espezifikoki, interesgarria iruditu zaigu horrelako izaki mitologiko emeen gaineko begirada eguneratzeko, eraldatzeko eta gogoratzeko posterrak sortzea proposatzea. Oinarrizko inspirazio iturri gisa, Homeroren *Odisea*-ko testu ezagun hau proposatzen dugu:

"Sirenengana helduko zara lehenengo, haiengana doazen gizasemeak liluratu ohi dituzten haiengana. Haiengana buruarin hurbildu eta haien ahotsa entzuten duenak ez da etxera itzultzen eta ez du gehiago bere emazterik ikusten ezta pozez inguratu ohi duten bere seme-alaba txikiak ere; baizik eta sirenek sorgindu ohi dute beren kantu doinutsuz, zelai baten jarririk eta narrua apurka-apurka ahituaz doakien gizaki ustelduen hezur-meta izugarria ingurumari edukirik. Zoaz bizkor handik, eta itxi zeure lagunen belarriak argizagi bigunez, aurretik mehetuaz nonbait, haietatik inork ere entzun ez ditzan; baina zeuk entzun nahi bazenitu, lotu diezazkizutela eskuak eta oinak oihal-ontzian, artez eta alboratuta, mastaren beheko aldean; horrela atsegina hartu ahal izango duzu sirenei entzunaz. Eta lagunei askatu zaitzaten eskatu nahiz agintzen badiezu, lotu zaitzatela lokarri gehiagoz."

Edonola ere, badakigu mendeetan barrena pinturako, literaturako eta are zinemako ehunka lanek izan dituztela protagonistatzat sirenak eta beste itsas izaki mitologiko batzuk, hala nola Gorgonak eta Zezelia; azkena, *Karibeko piratak IV*. Bada, guztiak izan daitezke gure poster lehiaketarako inspirazio iturri.

OINARRIAK

1. Formatu digitalean (jpg) aurkeztuko dira obrak (posterrak), bertikalean. DIN A3 formatuarenaren tamaina baliokidea izango dute, eta 300 puntu hazbeteko; hau da, 3508 x 4960 pixel. Posterrean, irudiak bakarrik zein irudiak eta posterraren edukia azaltzeko izenburu edo testu bat jarri ahalko dira.
2. Bi kategoriatan banatuko da lehiaketa:
 - Gazteen kategoria: 12-18 urtekoak, adin horietakoak barne.
 - Helduen kategoria: 18 urtetik gorakoak.

3. Posta elektronikoz bidez bakarrik bidali ahalko dira posterrak, actividades.oiasso@irun.org helbidera. Gaiaren eremuan, "Sirenen posterren lehiaketa" eta parte hartzailearen izen-abizenak adierazi beharko dira, eta, mezuaren gorputzean, berriz, kategoria (gazteak edo helduak), jaiotza data, helbidea eta telefono zenbakia. Posterraren irudia erantsita bidaliko da, eta izenburua jarriko zaio.
4. Parte hartzaile bakoitzak poster bakarra aurkeztu ahalko du, eta posterrak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 22an bukatuko da, 23:59an.
5. Oiasso Museoko langileek osatuko dute epaimahaia.
6. Epaimahaiak 2019ko martxoaren 25ean emango du epaia, eta, egun horretatik aurrera, lehiaketan parte hartzeko jasotzen diren lanak Oiasso Museoaren webgunean argitaratuko dira. Sariak museoan bertan banatuko dira, 2019ko martxoaren 29an, ostiralarekin.
7. Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar arauak onartzea.
8. Lan guztiak Oiasso Museoarenak izango dira.

SARIA

1. Kategoria bakoitzeko saria "Scape Room" baterako bi sarrera izango dira: "Faraoiaren ametsa", zeina Irunen bertan dagoen.

LEGE OHARRA

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko Datuak Babesteko Europako Araudia bat etorriz, fitxategi batean sartuko dira deialdi honetako parte hartzaileek ematen dituzten datuak. Oiasso Museoa izango da fitxategiaren arduraduna, eta deialdiari bide emateko bakarrik erabiliko ditu datuak.

Aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik ez duten hirugarrenen esku gelditzea saihesteko behar bezainbat babestuko dira datu pertsonalak, zertarako biltzen diren, beste helburu batzuetarako erabil ez daitezkeen. Gainera, datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeko eskubideak eta haien aurka egiteko eskubidea erabili ahalko dituzte titularrek, indarreko araudiaren arabera.